

VI. HAUSNARTU – 2013ko EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIETARAKO DEIALDIA

Soziolinguistika Klusterrak **VI. HAUSNARTU – 2013ko EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIETARAKO DEIALDIA** egin du.

OINARRIAK

HAUSNARTU sarien helburua euskal soziolinguistika teoriko edota metodologikoaren garapena eta berrikuntza da. Era berean, euskararen inguruko soziolinguistika-arloko hausnarketa-lanak ere onartuko dira.

EDUKIA

- Aurkezten diren lanak euskararen gaineko berriazko garapen teorikoak nahiz kanpoan landutako garapenetatik abiatuta gure hizkuntzaren egoera aztertzeko eta ulertzeko egokitzapenak izango dira.
- *Lanak teorikoak, teorien aplikaziokoak -edo ikerketa aplikatukoak- edota saiakera-arlokoak izango dira.*
- *Lanak aurretik argitaratu gabeak izango dira.* Interneten argitaratutako lanak ez dira bere horretan onartuko, argitaratutzat hartuko baitira.
- Jatorrizko oinarri teorikoa edo ikuspuntua ez du zertan soziolinguistikaren arloari lotua izan behar. Beste zientzia arlo batzuetatik euskararen egoerara egokitutako beste lan ildo batzuk ere aurkeztu ahal izango dira (antropologiatik, historiatik, informatikatik, fisikatik e.a.).

Aurkezten diren lanak oinarri zientifikoa izango dute, edota zientzian oinarritutako hausnarketak izango dira.

EGILEA

Egilea bakarra edo lantaldea izan daiteke. Ondorengo datuak jaso beharko dira:

- Egile guztien izena eta bi deitura, helbide postala zein elektronikoa, telefono-zenbakia.
- Lanbidea: Irakaslea, ikaslea, euskararen gaietan profesionala, euskaltzalea e.a., Lantokia, hala badagokio: Unibertsitatea, Fakultatea, e.a.

FORMATUA ETA LUZERA

Lanak word formatuan bidaliko dira eta irudiak ere izan ditzakete. Lehiaketak ez dio lanaren luzerari mugarik jarri. Nolanahi ere, gehienez 30.000 karaktere (hutsunerik gabe) dituen laburpena helaraziko du egileak, jatorrizko lana muga hori baino luzeagoa bada.

EPAI-MAHAIA

Soziolinguistikan adituak biltzen dituen lantalde batek ebaluatuko ditu jasotako lanak. Epaimahaia osatuko duten kideak honako hauek izango dira: Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari bat, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako ordezkari bat, BAT Soziolinguistika Aldizkariko ordezkari bat eta Soziolinguistika Klusterreko kide bat.

Euskal soziolinguistikan aditua den beste pertsona batek ordezkari dezake aurreko mahaikideren bat, egoki ikusiz gero.

Laguntzaileak:

SARIAK

Lehenengo saria:	1.500 €
Bigarrena saria:	1.000 €
Hirugarrena saria:	700 €

LANEN ZABALPENA

Lan hoberenak BAT aldizkariaren berariaz prestaturiko ale berezian argitaratuko dira. Horretarako, aurkeztutako lanak 35.000 karaktere baino gehiago baditu, 25.000-30.000 karaktereko laburpena argitaratuko da.

LAN SARITUEN ERREFERENTZIA

Lan sarituak BAT Aldizkarian argitaratuko dira lehenbizikoz. Lan horien ondorengo aipamenetan berariaz jaso beharko da Soziolinguistika Klusterrak antolatutako HAUSNARTU Sarietan saridun izana.

EPEA

Lanak bidaltzeko epea 2013ko irailaren 30ean amaituko da.

NORA

Artikuluak kluster@soziolinguistika.org helbidera bidaliko dira

Deialdiaren oinarriak www.soziolinguistika.org webgunean daude.